



BEGOÑA IBARROLA

ILUSTRAZIÓAK RAQUEL P. FARIÑAS

IBANEN MENDIA

desclée



BEGOÑA IBARROLA

IBANEN MENDIA

Ilustrazioak: Raquel P. Fariñas

Itzulpena: Miren Agur Meabe


desclée

03/2016
es. Rendeban un carácter de
benéficos, son inviables
a al capital con un grado
proprio de riesgo. A
to CMV 25/04/05. Enclav
en UG 02/24/01. Pro
vincia, So
ni.
indicativo del producto, serón: 7

das de
ps para de y todo m
haciendo en los aere
de Af y sig
descubri
un las para
omocloraciones
aeropue
del hote
limitada

201ERS
uno de los
autón
los g. impo





banen herria itsusi samarra zen, etxeak ez zeudelako zainduta eta kaleetan zaborra nahiz hondakinak pilatzen zirelako.

Haizeak indarrez putz egiten zuenez, bazter guztiak hautsez eta zikinez beterik ageri ziren.

Errematerako, biztanleek edonon uzten zituzten behar ez zituzten gauzak, kalean edota zelaietan, bost axola. Halaxe, behin eta berriz topatzen zuten zaborra etxe aurrean, haizeak ekarrita.

Herriaren kanpoaldean landa mortuak zeuden. Han ez zen ezer hazten, belar txarrak izan ezik, eta lehenagoko laboreek ez zuten aurrera egiten ur faltaren ondorioz.

Ume batzuek ez zekiten zer zen euria.

—Lehortea baino lehen herria bestelakoa zen —esaten zuen zahar batek—: euriari esker belarra hazten zen. Baratzeak genituen, eta gustua ematen zuen zelaiei begiratzeak lorez gainezka zeudelako. Leihoetan ere lore ugari izaten zen.

—Eta zein ederra zen arratsaldero ardien eta behien zintzarri-hotsa entzutea eskortara zetozela... —esaten zuen beste batek begirada galduta, joandako garaien penaz.

—Herri hau madarikatuta dago —gehitzen zuen hirugarrenak—. Haizea da gure bisitari bakarra, eta etortzen denean are gehiago zikintzen ditu kaleak.

—Nola ez da egongo herria zikin, nahi ez duguna edozein tokitan botatzen badugu? —azaltzen zuen azkenak—. Herria politagoa zen lehenago, jakina.

Baina ez zuten ezer egiten egoera aldatzeko, eta herria gero eta zatarrago zegoen, eta gero eta zabarrago. Bazirudien inori ez zitzaiola inporta leihoetan lorerik izaterik, kaleak garbi egoterik edota etxeak zurituta.





Reservar uno
de un veh
disponer de un veh
n por separado. Tr
regazo de un adult
los lanzadera: los
va que, debido a s

no repite el
n repite el
no repite el
caso de
damos un
de un veh
de un veh
de un veh

habla
puede haber
de un veh
de un veh
de un veh
de un veh

Goiz batean, eskolan, maisuak istorio bat kontatu zien umeei toki euritsu bati buruz. Orduan, Ibanek galdetu zion:

—Maisu, hemen zergatik ez du euririk egiten?

—Planetako klima aldatzen ari delako. Mendiak hurbil baleude, ez litzateke hau gertatuko. Hodeiei gustatu egiten zaie mendiekin hitz egitea eta, bidean jarraitu baino lehen, ura askatzen dute beren lagunentzat.

—Eta guk ezin dugu mendirik sortu? —ekin zion mutikoak, begiak zabal-zabalik.

Ikaskideek barre egin zioten eta maisuak irribarre. Iban, bada, isildu egin zen, baina ideia hura buruan bueltaka zerabilela.

Eta egun hartatik aurrera, eskolak amaitutakoan, gauzak batzen hasi zen. Aulki hautsiak, kaxak, plastikozko txanbilak eta ezertarako balio ez zuten hamaikatxo traste garraiatu zituen ibai idorraren ertzera, aititak utzitako orgatila zahar batean.